



## IRAKURGAI GAIZTOZ INGURATURIK



EON XIII-gaŕen Aita Santuak sudur luzea ta begi txofotxa zuen. Ufutira usmatzen zuen Elizaren etsaia nondik zebilen; Elizaren etsaiak nondik jotzen zuen; eta Elizaren k. lterik a. ndienak ere nondik bildur izan genezazken. Itz zofotzok Arenak dira, ba: «Gaurko gizaldiaren gaitz guzien aitzekia irakurgai (paper) gaiztoei emango lioketenak, ez lirake oker egongo.»

Irakurgai gaiztoak ekafi dizkiguten ondamenen erdian ez al gaude gaur? Ondamen oiek iñori etzaizkio izkututzen. Baño òraindik ere katolikoetan ba-dira zenbait, irakurgai gaiztoak alako gaitzik ekafi dutenik uste ez dutenak. Geiago dana irakurgai gaiztoa, ona bezela, edo ona baño ere gogotsuago irakurtzen dutenak. Eta òri egiteak kezkarik ematen ez diotenak; edo kezkarik ez balute bezela egiten dutenak beintzat.

Alakoari zerbait esaiezu; ta bereala erantzuten dizute: «Neri guzien befiak ikastea gustatzen zait.» Katoliko auen irudiñu ori zertatik dator? Ira-



kurgai gaiztoak kalterik egin dezaietekenik, uste ez dutelako. Eta irakurgai gaiztoa irakurtzea bera, pekatu danik gogoratzen etzaielako edo?

### Irakurgai (paper) gaiztoen lana.

Irakurgaiak, bera dan ariora, on edo gaitz aundiak egin dezazke. Egunaria edo egunerokoa ba'da, egunero-egunero telatutik bera datoñen ur-tanta bezala da. Ark bera erortzen dan tokian zulorik ez al du egiten? Luzarora, baita ahi bizian ere.

Astekari edo asterokoa ba'da, edo ilerokoa ba'da, astero edo ilabetero alako gauza itsusiak, edo Elizaren kontrakoak, edo Apaizak leku txafean uzten ditunak, edo erlijiosoaz pafa egiteko dakazkitenak, ez al dizute ezeren gaitzik egingo? Eta lendik bezelako begiramena, lotsa ta efespetoa izan-go al diozute naiz Elizari, naiz Apaizari, naiz fraile ta monjari?

Nor dan bakoitza jakitea on dala? Dana dan bezala esango ba'litzaitzu nonbait or. Eta zure etxeko zatar zikin guziak efiko guziak ikusteko eguzkitara ateratzea on al da? Ofek on egingo al diote zure efitafai? Ta zuri kalterik ez? Ta iñork zure kaltetan asmatutakoak zabalduko ba'litu egi utsa ba lira bezala? Oña, paper gaiztoak dagiten eguneroko, asteroko ta ilabeteroko lana.

### Edozein gauza irakurtzea erakeria da.

Lacordaire'k bere egunetan esaten zuan: «Irakurgaia (prensa) ezereze-tako artzea, erakeria dala; eta Jaungoikoaren arduratasunak (providenciak) gure eskura jafia gauza aunditzat artu bear dugula.»

Belar gaiztoak lufik onenetan efu gaiztoa ta azi gaiztoa uzten du; edari pozoinduak, gorputzik bizkoñenetan odola galdurik; eta irakurgai gaiztoak bere irakurle edo leitzalen buru-biotzetan alako efurik eta pozoñik ez ez ote du, ba, utziko?

Arto-tartean berez sortzen dan belar gaiztoari, besteren soro-alofetik botatakoea ere eransten diona ¿ez al zenuke erotako artuko? Irakurgai gaiztoak leitzean zer ari zeran, ortantxe ikusi, ba.

### Irakurgai gaiztoak debekatzea, eñien osasunak eskatzen.

Vigevano'ko Gotzai Agurgafiak, bere Artzai-eskutitz batean zion: «*Salus populi, suprema lex esto*; Eñiaren osasuna, legerik nagusiena izan bedi.» Au da, edozein eñietan legerik nagusienetako daukatena: Eñiaren ondame-na galaztea». Eta geroxeago beraiek dio: «Eñiaren osasunezko lege nagusien ofengatik, baitegi edo kartzeletan edo erotegietan itxi egiten dirala, edo baita afotz-eñietara bota ere, eñietako bizitza paketsu, zuzen, osasungagafiaren kaltekoak, eta oitura onen ondatzaleak.»

«Eta ori ondo egiña dago,—dio.—«¿Zergatik ez litzeke, ba, era berean lotu ta alde guzietara eragotzi bear, liburu tzar, egunkari (paper) ta irakurgai pozointsua, sorturik daudenak ondatuz, ofela efitar guzien afixku izugari ta iraunkor ori kentzen dala?» (1928'ko Garizuman).



### Gaurkoan irakurgai gaiztoen kaltea galaztekoz...

Gaurkoan katolikoak irakurgai gaiztoen kaltea galaztekoz:

1.<sup>a</sup> Etxe bakoitzean egunkari (eguneroko paper), astekari edo ilabetekari katoliko bat gabe ez egon.



Aita Santua Pazko egunean eria Vaticano'ko Kanpoko «Loggia'tik bedeinkatzen.

2.<sup>a</sup> Katolikoek paper onai laguntzeko al deguna egin, otoitzaz, diruz, edo beroiek zabalduz.

3.<sup>a</sup> Etxean deguna, gerok ikusi ondoren, katolikoek batzuei ikusteko eman.

4.<sup>a</sup> Egunkari edo nolanaiko paper gaiztorik inoiz ez erosi. Erosten duenari ones-onean artzea galazi al ba-da. Alako paperai inoiz ezeren *anunziorik* edo befirik ez bialdu ta alakotara bialtzea eragotzi alden guzian.

5.<sup>a</sup> Irakurgai onen egunean, Garagañilaren 29'an Jauna artu ta aldana irakurgai onen alde eman edo egin.

Intzar Damaso An.





# Itsu bainengoen!..

*Begiko zitzaizkidan guraso ta anaiak  
ken zizkidazun, Jauna, banaka guziak...  
Zauri ta gorde eskua!.. Artean biotza  
eziñez neurirazi taupadi zorotza.*


*«Jauna, Jauna, niotsan zotiñez itoa  
auxe lurtafarentzat lan eziñezkoa!  
Jauna, Jauna, zergatik onela min nauzu,  
zergatik zure eskuak ain latz ni ukitu?..*

*Agian Zuk, Jauna,  
—beldur dut esate—  
agian Zuk, Jauna,  
ez nauzu ai! maitel!..*

*Zoro ta itsu beltza bai!.. Ene! ezpainezien  
Maitasuna ari zala bereak egiten...  
Ezpainezien oro zidazula kendu  
biok genezan elkar bakarik maitatu!..*

*Jauna, barka idazu  
itsu bainengoa!..*

**Bedoña'r J.**



## GUZTIOK ILTZEKO GERTU



**ALESTINA'N zan.**


Gizon batek beste amabiri onako itzok esaten dizkie:  
Juan eta efi guztiai erakutsi Aitaren eta Semearen eta  
Espiritu Santuaren izenean bataiatuaz.

Nor al ziran amabi oiek? Bat ez bestea ařantzale ja-  
kiñezak. Erakutsi efi guztiai...

Bafeatu bařio len bere izenak gogora ekarři bear di-  
tugu: Kepa-Pedro, Jon-Juan eta Jagoba-Santiago Zebedeoren semeak; An-  
der-Andres Kepa edo Pedro'ren anaia; Pilipa Felipe; Toma-Tomas; Barto-  
loma-Bartolome; Matai-Mateo; Jagoba-Santiago, txikiena deitua; Tadai-Ta-  
deo edo Judas eta Simon Kana'tafa.

Gero Josu-Jesus saldu zuan Judas'en utsunea betetzeko Matia-Matias  
aukeratu zuten.





S. Pedro'ren enperantzan eria Aita Santuaren bedeinkapena artzen.



Geroago Josu-Jesus berak Paul-Pablo donea Apostolutzat aukeratu zuan.  
Erakutsi efi guztiai...

Ba-dijuaz alde guzietara...

Ain jakiñezak eta efi guztiai erakustera!

Zer erakusten dute, berak jafi zituzten alkartasun edo Elizen sinismenak adieraztera ematen digutenez? Josu-Jesus, Jaungoikoak egiazko Uzkurtza edo Erljioa erakustera biali zituala. Mirariak egin zituala.

Gure oben edo pekatuen zofa Jaungoikoari ordaintzeko Gurutzean iltzaturik il zala.

Il'en artetik piztu zala. Bere indafez gero Zerura igo zala.

Neke eta lan aundien erdian betetzen dute Josu-Jesus onak emandako agindua. Mundu onetarako etzuten ezer irabazten eta beste mundurako..?

Olako gezufak esan ezkeru ba-zekiten berak Jaungoikoak zigofada edo kastigu gogofa emango ziela ta au sinisten zuten.

Ta au guzti gora-bera...

Jagoba-Santiago, txikiena deitua, Jerusalem'en bizi zan.

Bere donetasun edo santutasunagatik bai kristauak, bai besteak ere, begirune edo efespetu aundia zioten. Elizan otoitz egiten denbora luzea egiten zuan. Etzuan moskortu dezaken edaririk artzen; oñutsik ibiltzen zan; jazteko soñeko latz bat bakafik ibiltzen zuan. Diotenez, otoitzean luzaro egoten zalako belaunak kamelu baten antzera gogortu zitzaizkion. Besteenganako maitetasun bizia zeukan. Danagatik efiak Zuzena, Ona deitzen zuan.

Kristauen etsaiak lotu eta epaile edo juezen aufera eraman zuten, alegia gure sinismenaren kontrako zerbait esanazteagatik. Efi guztiak entzun zezaketen leku batera eraman zuten.

Nonbait ikaratuko zalako ustea zeukaten eta ea Josu-Kristo-Jesukristo gure Jaunaz zer uste zuan galdetu zioten. Bai au erantsi ere: Esan, efiak zuk diozuna egingo du.

Ona bere erantzuerak: *Josu-Jesus Gizonaren Semea Jaungoikoaren Semea danez, Jaungoikoaren eskuian exeririk dago eta guztiok epaitu edo juzgatzerak zeruko odeien gañean etoriko da.*

Asefe bizian sartu ziran bere etsaiak, au entzutean.

Kristauak pozez beterik Josu'ren-Jesus'en aldeko oju alaiak egiten zituzten.

Etsaiak befiz andik bera bota bear zala esaten asi ziran, Elizaren goienara igo ta andik bota zuten, baña oraindik e-zan il-ta Jaungoikoaren otoitz au egin zuan: *Jauna barka zaiezu zer egiten duten ez dakite-ta.*

Etsaien amofua etzan itzaltzen, afika eman zioten eta bere etsaien eskuetan il zan.

Josu-Jesukristo Jaungoikoren Semea zala esateagatik.

Josu'k-Jesus'ek mirariak egin zituala gezufa izan balitz, ¿zer txarokeria berea! Mundu onetan afikatua eta ila eta bestean inpernura beaia.

Bera ona dalako guztiok maite zuten eta onek gezufik esan? Eta gezufa onik ateratzeko usterik gabe eta gero inpernura juateko ustean erakutsi?



Eta beste Apostoluak?

Beste Apostoluak, erakusten zuten Uzkurtzagatik, batek ez besteak bizia eman zuten: Jon-Juan donea ere il nai izan zuten: ofetarako pertza bat olio irakiñean sartu zuten, bañan Jaungoikoak andik bizirik atera zuan. Kepa-Pedro donea gurutzean buruz bera iltzatu zuten; Paul-Pablo doneari burua moztu zioten. Berdin egin zioten Jakoba-Santiago zafenari. Toma-Tomas doneak Indietan astamak il edo lantzaz zulatua il zan.

Pilipa-Felipe Ierapoli'n gurutzean iltzaturik eta afikaturik il zan. Bartoloma-Bartolomeri Armenia'n lafua kendu eta efegearen aginduz burua moztu zioten. Matai-Mateo Etiopia'n Ebanjelioa erakusten ari zala il egin zuten. Judas-Juda, beste izenez Tadai-Tadeo deitu eta Simon beriz efialde batzuten Ebanjelioa erakusten ibilita, Persiara alkafeekin jua ziran ta asko kristau egin-ta biok Josu rengatik-Jesu's engatik odola ixuri zuten.

Matia-Matias ere Ebanjelioa erakusteagatik il egin zuten.

Apostoluak Josu'ren garaiekoak dira. Geienak iru urtez berekin ibili ziran. Ba-zekiten berak nai zuana. Odola ixurtzeraño maite izan zuten. Beraz bere aginduak egiteko prest zeuden. Apostoluak egiazko Uzkurtza edo Erlijioa erakusteko Alkartasun bat, Eliza Kristaua jafi zuten. Beraz Eliza

Kristaua Josu'k-Jesu's'ek berak edo Apostoluen bitartez jafi zuan, eta bere gogokoa da.


Jaungoikoak bialdu zuan Josu-Jesu Uzkurtza erakustera; beraz guk nai ta ez Uzkurtza ori edo Erlijioa ori artu bear. Ori da Jaungoikoak nai duana.

Ikusi Apostoluak egin dutena, eta ikasi dezagun. Andres Gurutzean iltzatu zuten eta bi egunez gurutzetik efiari erakusten aritu zan.

Jaungoikari gurutzean iltzea eskatu zion eta zeruko argi aundiz inguratua animak bere gorputzetik zerura iges egin zuan.

Guk ez al degu oien antzera bizitzen saiatu bear?

**Arbelaitz.**



Nolaz iño ote nezake daukadan egaria?  
Pitara nai tez topatzen jauxen gauza larria!



# ATOZ, YESUS!

II

*Iraizoz'ko P.*

OLAZARAN A.

1933

*Andante* **Batzuek** *P*

O-gi-a-ren i-ru-di-an gu-re Ya-  
Mai-ta-su-nak ya-ri zai-tu o-gi-or

*mf.*

na-ri e-gi-ña Ye-sus al-da-re-an da-go; au zo-ri-on a-tse-gi-  
tan es-ta-li-a; mai-ta-su-nez urtzen da-go zu-re Bi-otz mai-ta-ti

*P* **Guziak** *cresc...* *mf.*

ña! Ye-sus mai-te-a, gu-re Ya-be-a, a-toz, Ye-sus, a-toz Ye-  
a.



sus! Zu ga -- be e-zin bi -- zi. Ai! e-to - ri, ai! e-to -- ri!

P

PP rit...

P

PP cres - -

Aingeruen ogi gozo  
zerutik yetxi zerana,  
guri zeruko bidean  
bizigafitzat emana.

*Yesus maitea...*



Emen zure aurpegia  
begiz ikusten eztugu;  
gero agiri zeruan  
ikus zaitzagun iguzu.

*Yesus maitea...*

## Aita Santua mindurik



SPANĀREN menpeko lufalde guzietako kristauei Aita Santuak idatzi digu. Len Elizaren goragañi asko sortu dira eridi ontatik. Aita Santuarekin ain batuak egon izan dira! Eridi ontakoen egintzarik aipagarrienak ez bai ditezke Elizarenetatik berezi ere. Argatixe Aita Santuak oraingo bigurialdi ontan miñik aundiena.

Guzien aitari dagokionez, askotan Aita Santuak berak edo bere Ordezkariren bidez Agintariei itzegin die. Lege tzañen baten bildura zan aldiro. Baño alpefik.

Orain Alkartasunen Legea edo delako ori eman duten ezkerro, ofen kontra oiua gogor egin gabe ezin litekela egon, dio. Elizari ta Erljioari bidegabekeri oso beltza egiten zaiolako ofen bidez; baita erabide beñiaren goratzaleak beti agoan duten askatasun edo libertadeari ere.

Eta ez uste izateko tankera beñiko agintaritzaren eziñ ikusiak itzeginañzen dionik. Tankera bateko edo besteko agintaritzagatik, Elizari etzaiola ajolik (axolik). Ainbeste Errepublikarekin bere alkartasun mami-mamizkoak egiñik dauzka. Eta Elizarekiko alkartasun ortatik on asko dariote berai.

Espaniko Agintariak ba-zekiten ta begi afean zeukaten naiz Elizaren Zaintzañe Buruak, Gotzaiak, naiz beren menpekoak eztirala aien kaltetan jeiki, ainbat txarkeri egin añen.

Aita Santua geienik onako onek aritu du: Errepublika beñiari eusteko aitezkia agiri-agirian emateak. Ortaraño beañezko egiten ba-litzaie bezela onelako



bidegabeko gauzak egitea. Miñik aundiena ofetxek eman dio Aita Santuari. Zergatik? «Jaunaren eta Kristo'ren gorotxa» Mexiko'n eta Efusian bezalaxe or-tan ageri dalako.

### **Elizaren eta lateriaren berexasuna.**

Españiko Lateriak erlijio legezkorik eztuela nai beñero dio lege beñian. Ori orde, Jaungoikoagandik eta Elizagandik berezi ta alde egin nai izatea da.

Beste edozein aldetakoai baño ere kaltegarriago zaiote, orde, Españikoai. Orain arteko bere bizibide guzia ortixe sendotzen zalako. Lege ori kaltegarri da, ba; kristau guzientzat eta batez ere gazteriarentzat; baño baita Lateri edo Estadu berarentzat ere. Legeak emateko eskubidea agintariak Jaungoikoagan-dik dutela aztu ezkeroz, non gelditzen da oien indafa?

Beste efidi batzuek ere, ofela berezi izanak, laxter beartu izan dira alkar-tasuna beñitzera, edo oker egiña nolabait zuzentzera.

Baño Españian askatasunaren izenean, iñori kentzen etzaizkion eskubideak Elizari ta elizgizonai kentzera bai-datoz.

Edozein motetako iritzi, den gaiztoenari ere, bizibidea uzten zaion artean, Elizari bere irakaspide guziak moztu edo eziñeztu egiten zaizkio. Katolikoen er-lijioa bere agerbide oiturezko ta berezkoenetan eragozpen aundiekin arkitzen da. Eliz-inguruetarako, Elizekoak emateko ta iñeriak egiteko ere, aldian aldiko bai-mena eskatu beaia jartzeraño.

### **Ditunak kendu ta petxak edo zergak jari.**

Iñongo legetan bakoitzari bere gauzen jabetasuna etzaio ukatzen; ori gor-detzeko laguntza ere ez. Españikotan ere Elizari ez bete guziei ura agintzen zaie. Baño Elizari bidegabekeri agerikoa egiñez, ditun guzien jabetasuna kendu ondoren, eliz-gizonen eskuetan uzten ditula adierazten du; eta ostu zaizkion gauzak, Elizak petxa edo zergak ordaindu bearko ditula. Ofela eskutan orain-dik uzten zaizkion gauzak nai bezela baliatzeko era Elizari kendu egiten zaio.

Uzten zaizkion gauzetan ere elizari zenbaterañoakoak bear egiten dioten ikustea, Lateriak bere eskutik gelditzen du. Ofela Lateria edo Estadua, Eliza-ren epailari geldituz.

Elizaren lur-puska ta etxealdeakin ezta pozik. Elizetan eta Elizaren etxe-tan ditun gauza aundi ta txiki guzi-guziak bereak ditula dio Lateriak. Elizari ken-tzen zaionaz ezertxo ere eman gabe. Alako eliz eder, bikañ zoragarriak, guziak Lateriarenak!

### **Eliza katolikoaren bizibide negargaiia.**

Lateriak Elizari oraindaño ematen ziona, len berari ostu ziona ordaintzeko zan. Zor ziona, Lateriak eztio ba onezkero eman nai.

Orain erlijioso Irakasleen kontrako lege, beren kalteko susmo gaiztoa za-baldu nai dute erian, Lateriaren kaltetan diran susmoa. Edozein bidez irakas-goan irauteko eskubidea ukatu egiten zaiote. Agintarien ordezeko zelatariak bial-duko zaizkiote; beren gauza guzien beñiak artzera. Ezin ordaindu izango dituz-ten petxak ere ba-datorzkiote.

Gauza oiekin erlijioso gizagaizo oiek eta beroietan azitzen ziran aufen etxe-koak naigabetzera datorz.

Oraindik uste dugu katolikoen biotz onak Apaizai bizitzeko laguntza ez dio-tela ukatuko.

### **Egintza negargari ta bidegabekeri agerikoa.**

Afotz-eriko baten esanetara egoteko eskeñitza ematen zuten aitzekian Je-



susen Lagundikoak, Iñaki ospetsuaren Seme argiak, sakabanatu zituzten. Ordun asitako egintza negargarri ta bidegabekeri agerikoa, oraintxe osotzen dute. Nola? Erligioso guziei irakastea (erakustea) eragotziz. Ainbeste mila erlijiosoen bizibidea orixe zan. Jaunaren deiaz lanbide nekagarri ta aspergarri ortara jaririk zeuden. Bizibidea kendu zaiote; petxa gogoñak jari nai zaizkiote; beren etxeaz Lateria jabetzen da. Eta etxe oien goratzaileak kristau egiazkoak eg-teko jaso zituen tokietan, kristau-legerik gabeko ikastolak jartzera dijoaz. Bidegabekeri agiriagoririk! Gazteri kristau-etsaia sortzeko asmotan dabiltzela agirian dago.

### Lege onen kontra.

Elizaren eskubide ta askatasuna ondatzen dituen lege ofen kontra, gure indar guziakin eta degun nagusitasun guziaz oi u egiten dugu; lege ofek inoiz ere indafik eztuela izango adieraziz.

Aita Santuak uste du katolikoak lege-emalea beartuko dutela lege ori kentzea; tartean Gotzaiai, Apaizai eta gazteriaren azierari emanik dauden guziei, erlijioaren alde erakusten saiatzea eskatzen die. Katoliko guzioi beriz, espa eta murtzuriak alde batera utzirik, erlijioaren eta erfidaren alde lana egitera batutze-ko. Batez ere *Ekintza katolikoan* sartzeko, politika guzien gañetik ori egon bear duelako, siñismena sendotzeko.

Jaungoikoak Elizari agindutako laguntzan daukala bere ustea. Ari egin zaizkion iraiñaz barkazioa eskatzen diola ta guziok erosi gintuen 19-en eunurte on-tan Zeruko Aitak eskari ori adituko duelakoan dagola.

*Eroman, 1933'ko Garagarñaren 3'ean, PIO XI'gañen Aita Santua.*

KALPAÑEGI

## USQUEQUO, DOMINE...


(XII'gañen salmoa)

Jauna, noiz arteraño  
nitaz antziko zera,  
noiz arte ostenduko  
di dazu aurpegia?

Noiz arte ibiliko da  
kezkaz nere gogoa,  
egunez min-neketan  
nere biotz gaxoa?

Noiz arte jaikiko da  
nere aurka etsaia?  
so-egidazu afen!  
entzun nere eskaria.

Jainko Jauna, begiak  
argitu zaizkidatzu,  
erio-lozoñoak  
bein ere ez nazan artu.



Nitaz etsaiaik noizpait  
esan ez dezan afo:

«Garaitu dut oraintxe  
eta gaindu natzaio.»


Ni ertsatzen nautenak  
alaituko lirake,  
kolokatzen naizela  
nabari balezate.

Nik ordean uste dut  
zure ufikalpenean,  
pozkañoz yauzten naiz  
zure gaizkapenean.

Nere ongile Jauna  
onetsiko dut beti,  
arai-egingo diot  
Jaunaren izenari.

*Iraizoz'ko Polikarpo A.*





Joan den urtean, nik eztakit zenbat motetako gaitzaldiak izan ditugun emen Txina'n.

Kolera dala orain, gero peste bubonica, geroago disenteria eta nik eztakit zenbat geiago.

Gaitzaldi oekatik ikusi ditugun beltzak eta zuriak, ene lagun dedan Tolosa'ko P. Bautista A. mixiolariak idatzi ditu ongi baño obeki.

Nik orain aldeki paregaritik artu nai det gaia. Jakiña, paregaria guretzat, txinarentzat ordea zentzun aundikoa.

Emen «Chengyu'en» peste bubonika delako izuriteak ainbat eta ainbat eriotz egiten zuan egun aietan bertan, ona zer bide asmatu zuten gure txengyuendafak gaitza aienatzeko.

Egin zituzten mandarinaren aginduz bost pa sei lastozko giza-irudi, orko txori-maloen antzekoak.

Txori-malo ok erabili zituzten uriko karika guzietatik bařena, atzetik jendeke ta gaitza zijoala eta danbořa ta azpilak (platilloak) gogotik jo ta joaz.

Jendeak nai zuen lastozko giza-irudiok beren gain artu zezatela izurite bildurgaria.

Uriko ateetara iritxi ziranean, jende guzia asi zitzairen gure txori-maloai madarikazioak, irařak eta laidoak esaten. Ontan txinarař oso jakintsu dira.

Ikaragarizko madarikazioak esaten zizkien arten, bota zituzten kanpora.

Jakiña, gure txori-maloak uritik at (kanpoan) gelditu ziran. Izuritea beriz uri bařuan len bezin gogor ta indartsu.

\*\*\*

Beste erabide artu bear zuten ba izuritea urutiarazteko.

Bazan urian gizon bat, berogeitsu urtekoa, bizi-bizia, iztuna,<sup>2</sup>noi-



zean bein geiegi edaten zuena. Jauntxo bat zan urian.

Egun artan ere geiegi edanik zegoen ta beste egunetan baño azkarago ta sutsuago itz egin oi zuan.

Bildu zituan bere ondora eztakit nik zenbat jende, geienak umeak. Itz egin zien bizi-bizi; eta guztiak baturik, aurrean bandera (ikurin) aundi bat zutela, joan ziran prozesioan karrika barena.

Bandera erdi-erdian itz oek idatzi-ta izki aundiz: «Izuritea, oa Japon'era»..!

Prosesioa aurrea zijoan bezela, jendea eregeituz ta ugarituz zihoan.

Noizen bein uriko lekuen batean geldi eginik, guztiak karaxi egin oi zuten ao batez: «Izuritea, oa Japon'era»..!

Orela uri guztitik ibili-ta, atera ziran kanpora eta zubi baten gañetik bota zuten ikurina (bandera) ibaira.

Botatzean ere, karaxi aundiak egin zituzten, esanaz: «Izuritea, oa Japon'era»..! «Izuritea, oa Japon'era»..!

Eta itzuli ziran etxera pozik, izuriteak Japon'era iges egin zuelakoan.

Baña gau artan bertan mandarina bera il zan.

Urango egunean jendeak esan oi zuan: ora izuriteak Japon'era nai zuen: baño etzekien biderik. Ora aukeratu du bidea. Mandarinaren bidez joan zaigu.

Baña beste asko ere il ziran. Eta izuritea patxada aundian zebilen uri baruan, gogoak ematen zizkion guztiak jo eta luera botaz.

Japondararak beriz bitartean, Mantxuri aldean, txinara jipoi ederrak ematen.

\*\*\*

Ementxe gure mixio-etxearen alboan il zan gizon bat, sendagilerik bere ondoan etzuela nai.

Erizañak entzun zuten oso gaizki zegoela eta ekari zioten sendagilea.

Gaxoak beriz ateak itxi zizkien bai erizañei, bai sendagileari.

Orduan erizañen buru bera etori zan. Ateak idiki-azi zizkion: eta aseréz irakiten ipini zan, gaxo are ondoan aztia arkitu zuelako, azti-kantak esaten.

Baitu zuan aztia; ta beso biak loturik, kale barena erabili-azi zuan, alboan gizon bat oiuka zijoala, esanaz: azti ura «pu she ko jao ren» etzala gizon ona: beraz inork etzuela ongi ikusi bear.

Ora or nik izurite denporan emen Txengyuen'en ikusi nituen paregari batzu...

\*\*\*

Nork esan zuan badirala orainik ume-erik (pueblos infantiles) mundu onetan...?

Eta nor izan zan gure Euskaleria ume-eri oetako bat dala esan zuena...?

Txina'n bizi izan balitz, zer esango zuan ba...?

Orela da egia. Txina onek umekeri asko ditu, aintzineko edertasun, bikaintasun ta osotasunen artean.



*Oñelako umekeriak bein baño geiagotan alaitzen digute guri mixiolarioi biotza eta ezañetara ekañ pareia.*

*Urango arte, Jainkoak nai baldin badu.*

**Yure'tar Julian A. O. M. Cap.**

*Txina'ko mixiolaria*

## **Txeng-yuenetik, 22-III-1933**

**Intzar Damaso A. Agñi.**

**IRUÑARA**

Nere biotzeko A. Agñia:

*Zure Egueritako atsegingariak mendi tontor batean arapatu nñun ill onen 7'an. Eskerik asko eta maizago betozkigu zuen beriak.*

**Emengo lanaldirik.....***aundienak izaten dira Azarotik—Otsail azken aldera; soroan lanik ez eta etxera biltzen bai dira kristau guziak illabete oietan. Mixiolariak beriz negu gofia izan añen, atera egin bear bere etxetik beltzak ikustera. Emen ez uste izan or bezela kristauak joango zaizkizula zure billa elizara: zuk ibilli bear dezu aien billa etxez-etxe mendiz-mendi.*

**Iru Urkamendira.**—*Nik ere aldi ontan izan det mixiolari bizitza zer dan ber-bertatik ikusteko egokitasun edera. Iru ateraldi egin ditut nere eliz barutira: «Iru Urkamendira.» Emendik ara irurogeitamabost (75) kilometroko bidea dago.*

**Lenengo ateraldia.**—*Joan dan Azaroaren 29'tik Neguillaren 10'era.*

*Ateraldi ontan irurogeita bi aitopen entzun nitun, irurogeita amai-ka komunio eman, amasei etxe bedeinkatu, bi ume (nexka ta mutilla) bataiatu eta ortarako irureun (300) kilometro ibilli beara izan nun...*

**Bigaren ateraldia.**—*Joan dan Ilbeltzaren 15'etik 27'ra. Ateraldi ontan berogeitazortzi aitorketa, irurogeitalau Jauna-artze, bost etxe bedeinkatu, bi ezkontza ta amabost bataio (nexka bat, bi mutiko, zazpi emakume ta bost gizon). Eta ortarako ibilli irureundabefogei kilometro...*


**Irugaren ateraldia.**—*Otsaillaren 9'an atera ta ill onen (Otsaillaren) 18'an itzuli. Ateraldi ontan berogeitamabost aitorketa, irurogeitabi Jaunartze, ezkontza bat, zortzi bataio: aur bat (mutilla) ta zazpi gizon, eta zazpi etxe bedeinkatu. Ortarako bereun daberogeita amabost (255) kilometro ibilli.*

*Aztutzer a zijoakidan: ateraldi ontan illeta bat ere izan nun. Nere eliz barutiko gizonik on-onetako bat il zait (G. B.). Badakizu noski emengo oitura: gorputzilla illobiratu baño len, zazpi egunen buruan egunean lau aldiz bere añaan belauniko jarita otoitz eta maru naiko-egiten dute, karasika etxea aidean ateratzeraño. Ni ere antxe arkitu nintzan bost egunen buruan. Illobiratzekoan seme zañenak biotza: ikutu zidan egiaz: an zijoan maruka bide guzian bere aita illotzaren*



*auretik bizkañean gurutze aundi bat zeramala, agure xar baten antzera makurtuta makilla baten gañean txutik nekez ibilliz...*

*Irurogeita iru egun dira guziak batera bilduta kanpoan egin ditudanak. Ibili ditudan kilometroak beñiz zortzireun da larogeitamabost (895). Eta ainbeste ibillita eunda irurogeita bost aitorketa besterik..! eunda larogeita bat Jaunartze besterik ez!.. ogeita bost bataio besterik ez!.., ogeita zortzi etxe bedekatu, iru ezkontza ta illeta bat, ori da nere lan guzia!..*



S. Pedro'ren eliza, Erroman, gauez argiturik.

*Bederatzi, amabi baño gradu geiago zerotik bera bero-neuriak jotzen zun garañean egiña da lan ori geiena eta aize zorotz batek sudura ederki zoroñen zidala.*

*Siñistuko al dezu?—Ala ere pozez bete-beterik beti nere biotza, nere mando gañean pozaren-pozet beti kantari... nork esango luke ez naizela txori muturgoi bat?..*

*Biotza erori zitzaidan ala ere pixka bat egun batean. Oraindik kristaua ez dan gizon bati ikustaldi bat egin beña izan nun. Etxeko gelarik edefenera eraman niñun eta an ederki baño ederkiago apainduta zer ikusi nula uste dezu? Erdi-erdian gezurẽzko jainkoa eta bere aurean gau ta egun piztu ta egoten dan argia... Ene! nere emengo kristauen artean ez tet oraindik egiazko Jaungoikoarentzat orẽn ederki apaindutako gelarik ikusi eta gutxiago oraindik bere aurean argia piz-*



tuta eukitzen dunik!.. Gero... ustekabena gogoia joan zitzaidan zuen eta nere alderdi oietara!.. «an ere badira bat baño geiago diabruari argia piztutzen diotenak!..» Baño ez: berealaxe bota nun burutazio txar ori... «Badira bestealdekoak ere asko... badira illean bein biñi-pein Jesusen Biotzari edo egun guzian argia piztutzen diotenak!.. Jesusen Biotza da etxe oietako Erege ta Jabel!.. Oñek poztu niñun!..

**Bukatzeke:** ioan dan larunbatean goizeko sei etan ateratzeu nintzan nere «Iru Urkamendetik» eta ordu laurden bat baño lenago, kilometro bateko bidea Txengyuen aldera egin baño lenago, antxe sartzen ziran lapurak tiroka. Beranduxeago atera banintz... edera egiten zidaten!.. Gañera nere aurenko asmoa etzan larunbata artan ateratzekoa, baizikan urango astelenean. Nork kendu zidan burutik asmo ura? Jaungoikoak noski... Ara nola: Jose santuaren egunean bataioa artzeko asmoz kristau-Ikasbidea ikasten ari ziran zazpi gizonak amar bat egun aurretik belauniko eskatu zidaten ari lenbailen bataioa emateko, giro edera ari zala egiten eta etxera joan bear zutela soro-lan asko zutela-ta.

Nik erantzun nien Kristau-Ikasbidea ondo ikasteko ta Jaungoikoak ugari bedeinkatuko zizkiela soroak. Baño ala ere agindu nien bi egun aurretiko niela bataioa eguna.

Oñela illaren 19'an bataiatu bearean, 16'an bataiatu ta 17'an aldegin andik eta lapurak bertan sartzerako aldameneko mendi gaina artua neukan... Afitzekoa da nola goiz artan ofen berandu sartu ziran erian: geienetan goiz-sentian iendea oiatik jeikitzen asterako sartzen dira... Goiz artan ez ordea... zergatik?.. nork galerazi zien mixiolaria atera arte sartzea?.. Jaungoikoak, nere Jaungoiko maiteak!..

Esker bero, beroak eman bear dizkiogu etengabe nik eta zuek bere mixiolariok bere eskuetatik bein ere lasatu gabe gauzkalako!.. Bai, beti eskeronak!..

Agur, ondo bizi ondo iltzeko, danai eskumunak eta ez aztu zure otoitz beroetan biotzez lastantzen zaitun zure biotzeko.

**Tolosar Pedro Bautista A.**

## IL-BERIAK

**Zeruko Argia'**ren arpidedun zintzo auek Jaunaren besoetan betiko loa artu dute:

**Astiz'en:** Frantzisko Iribaren, Apaiz Jauna. **Donosti'an:** Inazio Loinaz Efasti eta Jose Manuel Ayerta Soraluze.

*Betiko atsedena emaezu, Jauna. Eta betiko argiak argitu bitza.  
Reude pakean. Amen.*